



## **AIARAKO UDALAK 2022ko MARTXOAREN 17an EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA.**

### **PRESIDENTEA**

Gentza Alamillo Udaeta jauna

### **ZINEGOTZIAK**

Iñigo Pinedo Vadillo jauna  
Montse Angulo Solloa andrea  
José Antonio Bartolomé Pesquera jauna  
Susana Martín Benavides andrea  
Itxaso Gorbeña Allende andrea  
Unai Campo Arenaza jauna  
Karmele Población Martínez andrea  
Marian Mendiguren Mendíbil andrea  
Koldo Mendioroz Goldaraz jauna  
Iratxe Parro Uzquiano andrea

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hogeita biko martxoaren hamazazpian, hemeretziak direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, eta bilera deitu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46 b) artikuluan xedatutako aurrerapenarekin. Naiara Lazpita Marcos andrea da idazkaria.

### **IDAZKARIA**

Naiara Lazpita Marcos andrea

Alkate jaunak ongietorria egin die guztiei, eta, beste iruzkinik egin gabe, **GAI-ZERRENDAN** jasotako puntu hauek jorratzeari ekin diote:

### **1.- Onestea, bidezkoa bada, 2022ko otsailaren 17an eginiko Ohiko Osoko Bilkuraren Akta.**

Ez da aktaren gaineko iruzkin gehiagorik egin, beraz bertaratutako zinegotziek (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek) aho batez akta onetsi dute.



**2.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta buru gaixotasuna duten pertsonen eta senideen Aiarako Elkartearen (ASASAM) arteko 2022rako Lankidetzeta-hitzarmena. Hitzarmen horren bidez zuzeneko dirulaguntza ematen da.**

Udalbatzari jakinarazi zaio gai horri dagokion Soziosanitarioa, Berdintasuna, Immigrazioa eta Adineko Pertsonak Informazio Batzordearen 2022ko martxoaren 8ko aldeko irizpena.

Ez da horren gaineko iruzkinik egin, beraz bertaratutako zinegotziek (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek) aho batez gaia onetsi dute.

Hori dela bide,

**IKUSI DA.-** Orain arte bezala, udalak irabazi asmorik gabeko Erakundea (Asasam) laguntzeko eta erakundeak Aiarako Eskualdean egiten duen jarduera sustatzeko duen interesa. Gainera, jarduera hori zuzenean onuragarria da udalerriko hainbat pertsonentzat.

**IKUSI DA.-** Aiarako Udalaren eta buru gaixotasuna duten pertsonen eta senideen ASASAM Elkartearen arteko 2022 urterako lankidetzeta-hitzarmena. Hitzarmen horren bidez zuzeneko dirulaguntza ematen da.

**IKUSI DA.-** Soziosanitarioa, Berdintasuna, Immigrazioa eta Adineko Pertsonak Informazio Batzordearen 2022ko martxoaren 8ko aldeko irizpena.

**AINTZAT HARTU DA.-** Hitzarmenak Aiarako Udalak ASASAM Elkartearen alde egiten duen zuzeneko dirulaguntza arautzen duela. Hitzarmena 2021eko udalaren aurrekontuan dago eta 2022rako luzatu da. Aurrekontu-aplikazio izendunak kreditu nahikoa eta egokia du hitzarmena sinatzeak Udalari ekarriko dion gastuari aurre egiteko.

Bertaratutako zinegotziek (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek) aho batez onetsi dute, eta **ERABAKI DUTE:**

**Lehenengoa.-** Aiarako Udalaren eta buru gaixotasuna duten pertsonen eta senideen ASASAM Elkartearen arteko 2022rako lankidetzeta-hitzarmena onestea. Hitzarmen horren bidez zuzeneko dirulaguntza ematen da. Testuak honako hau dio hitzez hitz:



**AIARAKO UDALAREN ETA BURU GAIXOTASUNA DUTEN PERTSONEN ETA  
SENIDEEN AIARAKO ELKARTEAREN (ASASAM) ARTEKO  
LANKIDETZA-HITZARMENA. 2022**

Arespalditzan, 2022ko martxoaren (e)(a)n.

**BILDUTAKOAK**

*Alde batetik, Gentza ALAMILLO UDAETA jauna, Aiarako Udaleko alkate-udalburua, Aiarako Udaleko Idazkaria den Naiara Lazpita Marcos andrearekin batera.*

*Bestalde, M<sup>a</sup> Ángeles Arbizagoitia Tellería andrea, adin nagusikoa, 72163503-Z zenbakia duen NANaren titularra dena eta buru gaixotasuna duten pertsonen eta senideen Aiarako Elkartearen (aurrerantzean Asasam) presidentea da.*

**ESKU HARTZEN DUTE**

*Lehenengoa Aiarako Udaleko alkate-udalburua dela, toki-erakunde horren izenean eta ordezkari dela. Toki-erakundea horretarako gaituta dago eta eskuduna da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera.*

*Bigarrena ASASAMen (IFK zk.: G01048594) izenean eta hori ordezkatzuz. Haren nortasuna eta ordezkagarritasuna igorritako ziurtagiriaren bidez egiaztatzen da, eta ziurtagiri hori dokumentu honi eransten zaio.*

*Biek elkarren gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa aitortzen diote elkarri **lankidetzeta-hitzarmena** emateko eta betetzeko. Horretarako*

**ADIERAZTEN DUTE**

*I. ASASAM Elkarteak irabazi asmorik gabeko erakundea dela eta buru gaixotasuna duten pertsonen eta haien senideen osatzen dutela. Erakundearen helburua buru gaixotasuna duten pertsonen arreta osoa eskaintzea da, eta urtean zehar hainbat programa eta proiektu garatzen dira:*

- *Gizarte-ekintza programa.*
- *Hezkuntza-psikologiako laguntza programa.*
- *Zentro psikosoziala.*
- *Egoitza-programa.*
- *Gizarte eta lanerako integrazio programa.*
- *Orientabidea eta laguntza psikologikoa.*
- *Esku-hartze komunitariorako programa.*



**II.-** Aiarako Udalak ASASAMen jarduera laguntzea erabaki duela, erakundeak eskualde honetan egiten duen eta gainera Aiarako udalerriko hainbat pertsonentzat onuragarria den zeregin soziala aintzat hartuz. Jarduera laguntzeko, besteak beste, hitzarmen hau egiten da, urtean zehar egingo diren hainbat jarduera garatzeko urteroko dirulaguntza arautzen duena.

**III.-** Aplikazioari buruzko legeria zehatz-mehatz betez eta kontuan hartuz Toki-erakundea laguntzen duen lankidetzeta-hitzarmena sinatzeko gaitasuna, alde biek lankidetzeta-hitzarmena formalizatzeari ekin diote, honako baldintza hauek ezarritz:

### **HIZPAKETAK**

**LEHENENGOA.-** Hitzarmenaren xedea, Aiarako Udalaren aldetik, ASASAMek 2022 urtean zehar egiten dituen hainbat ekimen eta jarduera sustatzen laguntzea da. Ekimen eta jarduera horiek aipatutako pertsonen kolektiboa garatzen eta integratzen laguntzen dute. Hitzarmen honen kontura egiten diren dirulaguntzak jasoko dituzten jarduerak "I. adierazpenean" aipatzen diren edozein izango dira.

**BIGARRENA.-** Edukia, Aiarako Udalak egingo duen laguntza-ekintzarena, 2022an zehar ASASAMek egingo dituen eta aurreko atalean deskribatu diren jarduerak ekarriko dituzten gastuentzako dirulaguntzan zehazten da.

**HIRUGARRENA.-** Dirulaguntza, administrazio honek jarduera sustatzeko emango duena, goian deskribatutako jarduerak garatzea ekartzen dituen gastuak ordaintzeari zuzenduta egongo da.

Dirulaguntza jarduerak garatzean dauden gastuen arabera kalkulatu da, eta kontzeptu horietarako ASASAMek jaso ditzakeen beste dirulaguntzen diru-sarrerak deskontatuko dira.

Gehienez ere, 2022 ekitaldirako hitzarmenari lotutako udalaren dirulaguntza **BOSTEHUN (500) EUROKOA** izango da.

**LAUGARRENA.-** Urteko udalaren dirulaguntzaren zenbatekoa (gehienez 500 €) **ARRAZOITZEKO**, jarraian adierazitako dokumentazioa aurkeztuko da, aipatutako zenbatekoari dagokiona:

a) Hitzarmenaren dirulaguntzarekin egindako jardueretarako jasotako beste dirulaguntza guztien deklarazioa, horiek erakunde publiko zein pribatu batek eman dituela.

b) Foru-ogasunari eta Gizarte-segurantzari egin beharreko ordainketak egunean dituztela egiaztatzen duen ziurtagiria. Hala ere, instrukzio-organoak Gizarte-segurantzari egin beharreko ordainketak eta zerga-betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen duen ziurtagiria kontsultatu eta egiaztatuko du elkarreragingarritasunarekin, eskatzaileak edo onuradunak aurka egon ezean. Aurka badaude, **I. ERANSKINA BETE BEHARKO DU** eta dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.



c) *Honako dokumentazio hau, bere jarduerari buruzkoa:*

- *Dirulaguntza jaso den ekitaldiaren gastuen eta sarreren balantzea.*
- *Dirulaguntza jaso den ekitaldiaren Jardueren Memoria (egindako jarduera bakoitzaren ebaluazio-txostena eta zinpeko adierazpena, egin bada).*
- *Amaitu den urtearen memoria ekonomikoa (jardueren gastua + funtzionamendugastuak), bere gastu eta sarrerekin, dagozkion fakturak eta ordainketa-dokumentuak aurkeztuz.*

*Lehenengo hizpaketan adierazitako baldintzak bete ezean ez da dirulaguntza emango, eta aurretik ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedura hasiko da.*

***2023ko urtarrilaren 31rako** laugarren hizpaketan eskatzen den justifikazioa aurkeztu ezean ez da dirulaguntza emango, eta aurretik ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedura hasiko da.*

*Dirulaguntza **ez da bateragarria izango** udalak deitzen dituen gainerako dirulaguntzekin.*

***BOSGARRENA.-** Dirulaguntza jasoko duten jardueren egikaritze epea dirulaguntza jasotzen den urtearen, kasu honetan 2022 urtearen, denbora mugen arabera izango da.*

***SEIGARRENA.-** Dirulaguntza hau ordaintzeko modua honako hau izango da: Aiarako Udalak ezarritako gehieneko dirulaguntzaren % 80 ordainduko du behin hitzarmena sinatuta. Gainerako % 20a hitzarmenaren LAUGARREN klausulan adierazitako dokumentazioa aurkezten denean ordainduko da.*

*Aiarako Udalak edozein momentuan eskatu ahal izango du beharrezkotzat jotzen duen informazioa.*

***ZAZPIGARRENA.-** ASASAMEk egiten duen edozein publizitatean jasota egon beharko da Aiarako Udalaren laguntza.*

***ZORTZIGARRENA.- Datuen babesa.** AIARAKO UDALAREN aldetik Hitzarmena egiteko eta lortzeko erabiltzen diren datu pertsonalak “Administrazio-espedita” izeneko tratamenduan jasoko dira. Tratamendu hori izaera orokorreko udal-jardueraren administrazio-kudeaketarako da. Arduraduna Elexalde auzoko 3. zenbakian dago, 01476 · Arespalditzan (Araba); telefono-zenbakia 94539 90 13 da. Helbide elektronikoa: [info@aiarakoudala.eus](mailto:info@aiarakoudala.eus) eta IFK: P0101100F. Kasua denean, datu pertsonalak honako hauek eman ahalko zaizkie: erregistro publikoei, Administrazio Publikoko organoei, Notario eta Prokuradoreei, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei, bankuei, aurrezki-kutxei eta finantza-erakundeei, aseguru-erakundeei, osasun-erakundeei edota Epaitegi eta Auzitegiei. Interesdunak eskubidea du bere datuetan sartzeko, horiek zuzentzeko eta ezabatzeko, eta datuak baliatzea mugatzeko edo aurka egiteko Udalbatzaren zuzendaritzari idatzizko jakinarazpena bidali beharko dio. Jakinarazpen horrekin batera identitatea egiaztatzen duen dokumentua bidali beharko da. Jakinarazpena egin*



nahi ezean, Udalbatzaren egoitza elektronikoa horretarako dagoen izapidea hasi daiteke. Datuak pertsona interesdunaren edota bere ordezkariaren bidez eskuratu dira, eta baita Administrazio Publikoen bidez ere. Informazio gehiago lortu daiteke webgunera joz: [www.aiarakoudala.eus](http://www.aiarakoudala.eus) edo telefono-zenbakira deituz: 945 39 90 13.

**BEDERATZIGARRENA.-** ASASAMen aldetik Hitzarmenean ezarritako betebeharrak ez badira betetzen, indarrean dagoen dirulaguntzen araudian ezartzen den erantzukizunen eta zehapenen erregimena ezarriko da.

Erabakitakoa adostasunez onesten dela frogatzeko, aldeek lankidetzeta-hitzarmenaren bi ale sinatzen dituzte, zuzenketa edo zirriborrorik egin gabe. Hori dokumentua osatzen duten 4 folioetan egiten dute. Horrela, dokumentua betetzea agintzen dute.

ALKATE-UDALBURUA,  
Sin.- Gentza Alamillo Udaeta

ASASAMEKO PRESIDENTEA,  
Sin.- M<sup>a</sup> Ángeles Arbaiza Tellería

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA,  
Sin.- Naiara Lazpita Marcos

Alkateak eta idazkari kontu-hartzaileak elektronikoki sinatutako dokumentua

## **I. ERANSKINA**

**Gizarte-segurantzari egin beharreko ordainketak eta zerga-betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen duten ziurtagiriak. DATU EGIAZTAGARRIAK. AURKA EGITEA.**

Udal honek behar beste kontsultatu eta egiaztatuko ditu Gizarte-segurantzari egin beharreko ordainketak eta zerga-betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen duten ziurtagiriak. Hori eskura dauden datuen bitartekaritzarako sistemarekin egingo da. Beheko sinatzaileak kontsulta eta egiaztapen horien aurka egin dezake, eta hori eginez gero dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu Laugarren klausulan adierazten diren frogagiriekin batera.

**Egiaztapen horren aurka egonez gero, jar ezazu X bat:**

- Udalak Ogasunaren (AFA) ordainketak egunean ditudala egiaztatzen duen Ziurtagiria kontsultatzeari aurka egiten diot.
- Udalak Gizarte-segurantzaren ordainketak egunean ditudala egiaztatzen duen Ziurtagiria kontsultatzeari aurka egiten diot.

I.F.K. C.I.F. P0101100F



Aurka egitearen arrazoiketa.

*Aurka eginez gero, aurka egiteko arrazoiak justifikatu behar dituzu (3/2018 Lege Organikoaren 18. artikulua).*

---

---

---

---

Data: \_\_\_\_\_

Erakundea: \_\_\_\_\_

Ordez kariaren izena: \_\_\_\_\_

Sin.- \_\_\_\_\_

*Datu pertsonalen tratamendua legitimatuta dago interes publikoaren izenean edo Aiarako Udalari emandako botere publikoen izenean egindako misio bat betetzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 e) artikuluan, eta gainerako legeria aplikagarrian aurreikusitakoaren arabera.*

**Bigarrena.-** Alkate-udalburuari adierazitako hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

**Hirugarrena.-** ASASAM Erakundeari akordio honen berri ematea, dagokion hitzarmena sinatzeko.

**3.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Amor Misericordioso Ikastetxearen arteko 2022rako lankidetzeta-hitzarmena. Hitzarmen horren bidez zuzeneko dirulaguntza ematen da.**

Udalbatzari jakinarazi zaio gai horri dagokion Soziosanitarioa, Berdintasuna, Immigrazioa eta Adineko Pertsonak Informazio Batzordearen 2022ko martxoaren 8ko aldeko irizpena.



Ez da horren gaineko iruzkinik egin, beraz bertaratutako zinegotziek (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek) aho batez gaia onetsi dute.

Hori dela bide,

**IKUSI DA.-** Menagaraiko Amor Misericordioso Ikastetxeak egiten duen zeregin soziala ikastetxean jasotako ikasleekin, eta Aiarako Udalak duen interesa zeregin hori sustatzeko.

**IKUSI DA.-** Aiarako Udalaren eta Amor Misericordioso Ikastetxearen arteko 2022 urterako lankidetzaz-hitzarmena. Hitzarmen horren bidez zuzeneko dirulaguntza ematen da.

**IKUSI DA.-** Soziosanitarioa, Berdintasuna, Immigrazioa eta Adineko Pertsonak Informazio Batzordearen 2022ko martxoaren 8ko aldeko irizpena.

**AINTZAT HARTU DA.-** Hitzarmenak Aiarako Udalak Menagaraiko Amor Misericordioso Ikastetxearen alde egiten duen zuzeneko dirulaguntza arautzen duela. Hitzarmena 2021eko udalaren aurrekontuan dago eta 2022rako luzatu da. Aurrekontu-aplikazio izendunak kreditu nahikoa eta egokia du hitzarmena sinatzeak Udalari ekarriko dion gastuari aurre egiteko.

Bertaratutako zinegotziek (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek) aho batez onetsi dutela, eta **ERABAKI DUTE**:

**Lehenengoa.-** Aiarako Udalaren eta Amor Misericordioso Ikastetxearen arteko 2022rako lankidetzaz-hitzarmena onestea. Hitzarmen horren bidez zuzeneko dirulaguntza ematen da. Testuak honako hau dio hitzez hitz:

**“AIARAKO UDALAREN ETA MENAGARAIKO AMOR MISERICORDIOSO  
IKASTETXEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA. 2022**

*Arespalditzan, 2022ko martxoaren (e)(a)n.*

**BILDUTAKOAK**

*Alde batetik, Gentza ALAMILLO UDAETA JAUNA, Aiarako Udaleko alkate-udalburua, NAN zk. 44686448-R, adierazitako entitatearen ordezkari dela, eta Aiarako Udaleko Idazkaria den NAIARA LAZPITA MARCOS ANDREAekin batera, NAN zk. 45676325-G, ekitaldiaren fede ematen duena.*

*Bestalde, Elisa PELAZ BAÑOS ANDREA, adin nagusikoa, NAN zk. 14915462-P, Menagaraiko AMOR MISERICORDIOSO Ikastetxearen zuzendaria.*

**ESKU HARTZEN DUTE**

I.F.K. C.I.F. P0101100F





*Lehenengoa Aiarako Udaleko Alkate-Udalburua dela, toki-erakunde horren izenean eta ordezkari dela. Toki-erakundea horretarako gaituta dago eta eskuduna da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera.*

*Bigarrena Amor Misericordioso Ikastetxearen (IFK zk. R-0100129-F) izenean eta hori ordezkatzuz. Haren nortasuna eta ordezkagarritasuna Ikastetxeak berak igorri duen ziurtagiriaren bidez egiaztatzen da, eta ziurtagiri horri zuzendaria hautatzen eta izendatzen den akta aurkezten da (akta hori hitzarmenari erantsen zaio "1. dokumentua" izenarekin).*

*Biek elkarren gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa aitortzen diote elkarri **lankidetzeta-hitzarmena** emateko eta betetzeko. Horretarako*

### **ADIERAZTEN DUTE**

***I.-** Aiarako udalak **AMOR MISERICORDIOSO** Ikastetxearen zeregin soziala kontuan hartu duela, eta laguntza emango diola, besteak beste, hitzarmen honen bidez, 2022 urtean zehar egingo diren hainbat jarduerara garatzeko urteko dirulaguntza arautzen duena.*

***II.-** Aplikazioari buruzko legeria zehatz-mehatz betez eta kontuan hartuz Toki-erakundea laguntzen duen lankidetzeta-hitzarmena sinatzeko gaitasuna, alde biek Lankidetzeta-hitzarmena formalizatzeari ekin diote, honako baldintza hauek ezarritik:*

### **HIZPAKETAK**

***LEHENENGOA.-** Hitzarmenaren xedea, Aiarako Udalaren aldetik, **AMOR MISERICORDIOSO** Ikastetxeak urtean zehar egiten dituen hainbat ekimen eta jarduerara sustatzen laguntzea da. Ekimen eta jarduerara horiek ikasleen garapen pertsonala lagundu eta haien bizi-kalitatea hobetzen dute. Hitzarmen honen kontura egiten diren dirulaguntzak jasoko dituzten jarduerak honako hauetatik edozein izango dira:*

- Ikasleen bizitza edo hezkuntza jarduerak errazten dituzten altzariak, erremintak edo tresnak erostea.*
- Ikasleen integrazioa eta garapen pertsonala laguntzen duten kultura- edo aisialdi-jarduerak edo ekitaldiak egitea edo antolatzea.*

***BIGARRENA.-** Edukia, Aiarako Udalak egingo duen laguntza-ekintzarena, 2022an zehar **AMOR MISERICORDIOSO** Ikastetxeak egingo dituen eta aurreko atalean deskribatu diren jarduerak ekarriko dituzten gastuentzako dirulaguntzan zehazten da.*



**HIRUGARRENA.-** Dirulaguntza, administrazio honek jarduera sustatzeko emango duena, goian deskribatutako jarduerak garatzea ekartzen dituen gastuak ordaintzeari zuzenduta egongo da.

*Dirulaguntza jarduerak garatzean dauden gastuen arabera kalkulatu da, eta kontzeptu horietarako Ikastetxeak jaso ditzakeen beste dirulaguntzen diru-sarrerak deskontatuko dira.*

*Gehienez ere, hitzarmenari lotutako udalaren urteroko dirulaguntza BI MILA (2.000,00) EUROKOA izango da.*

**LAUGARRENA.-** Urteko udalaren dirulaguntzaren zenbatekoa (gehienez 2.000 €) **ARRAZOITZEKO**, jarraian adierazitako dokumentazioa aurkeztuko da, aipatutako zenbatekoari dagokiona:

- *Foru-ogasunari eta Gizarte-segurantzari egin beharreko ordainketak egunean dituztela egiaztatzen duen ziurtagiria. Hala ere, instrukzio-organoak Gizarte-segurantzari egin beharreko ordainketak eta zerga-betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen duen ziurtagiria kontsultatu eta egiaztatuko du elkarreragingarritasunarekin, eskatzaileak edo onuradunak aurka egon ezean. Aurka badaude, I. ERANSKINA BETE BEHARKO DA eta dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.*

- *Udalaren dirulaguntzaz gain izandako sarrera guztiak aitortu beharko dira (AFaren dirulaguntza, eta egotekotan KONTRATUAREN BIDEZ DIRULAGUNTZA JASO DUTEN JARDUERA EDOTA MATERIALEI LOTUTAKO bestelako dirulaguntzak) (Bete beharreko inprimakia eransten da).*

- *Dirulaguntza jaso duten jarduera edo programen gastuen eta sarreraren balantzea.*

- *Programaren memoria (egindako jarduera bakoitzaren ebaluazio-txostena edo azalpena eta zinpeko adierazpena, egin bada; edota kasua denean, dirulaguntzaren kontura erosi diren altzari, erreminta edo tresnen deskribapena).*

- *Gastua frogatzen duten fakturen eta ordainagirien kopia.*

*Lehenengo hizpaketan adierazitako baldintzak bete ezean ez da dirulaguntza emango, eta aurretik ordaindutako zenbatekoa itzultzeko prozedura hasiko da.*

*2023ko urtarrilaren 31rako hitzarmenaren laugarren hizpaketan eskatzen den justifikazioa aurkeztu ezean ez da dirulaguntza emango, eta aurretik ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedura hasiko da.*

*Dirulaguntza ez da bateragarria izango udalak deitzen dituen gainerako dirulaguntzekin.*



**BOSGARRENA.-** Dirulaguntza jasoko duten jardueren egikaritze epea dirulaguntza jasotzen den urtearen, kasu honetan 2022 urtearen, denbora mugen arabera izango da.

**SEIGARRENA.-** Dirulaguntza hau ordaintzeko modua honako hau izango da: Aiarako Udalak ezarritako gehieneko dirulaguntzaren % 80 ordainduko du behin hitzarmena sinatuta. Gainerako % 20a hitzarmenaren LAUGARREN klausulan adierazitako dokumentazioa aurkezten denean ordainduko da.

Aiarako Udalak edozein momentuan eskatu ahal izango du beharrezkotzat jotzen duen informazioa.

**ZAZPIGARRENA.-** AMOR MISERICORDIOSO Ikastetxeak egiten duen edozein publizitatean jasota egon beharko da Aiarako Udalaren laguntza.

**ZORTZIGARRENA.- Datuen babesa.** AIARAKO UDALAREN aldetik Hitzarmena egiteko eta lortzeko erabiltzen diren datu pertsonalak "Administrazio-espedita" izeneko tratamenduan jasoko dira. Tratamendu hori izaera orokorreko udal-jardueraren administrazio-kudeaketarako da. Arduraduna Elexalde auzoko 3. zenbakian dago, 01476 · Arespalditzan (Araba); telefono-zenbakia 94539 90 13 da. Helbide elektronikoa: [info@aiarakoudala.eus](mailto:info@aiarakoudala.eus) eta IFK: P0101100F. Kasua denean, datu pertsonalak honako hauek eman ahalko zaizkie: erregistro publikoei, Administrazio Publikoko organoei, Notario eta Prokuradoreei, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei, bankuei, aurrezki-kutxei eta finantza-erakundeei, aseguru-erakundeei, osasun-erakundeei edota Epaitegi eta Auzitegiei. Interesdunak eskubidea du bere datuetan sartzeko, horiek zuzentzeko eta ezabatuzeko, eta datuak baliatzea mugatzeko edo aurka egiteko Udaltzaren zuzendaritzari idatzizko jakinarazpena bidali beharko dio. Jakinarazpen horrekin batera identitatea egiaztatzen duen dokumentua bidali beharko da. Jakinarazpena egin nahi ezean, Udaltzaren egoitza elektronikoa horretarako dagoen izapidea hasi daiteke. Datuak pertsona interesdunaren edota bere ordezkariaren bidez eskuratu dira, eta baita Administrazio Publikoen bidez ere. Informazio gehiago lortu daiteke webgunera joz: [www.aiarakoudala.eus](http://www.aiarakoudala.eus) edo telefono-zenbakira deituz: 945 39 90 13.

**BEDERATZIGARRENA.-** AMOR MISERICORDIOSO Ikastetxearen aldetik Hitzarmenean ezarritako betebeharrak ez badira betetzen, indarrean dagoen dirulaguntzen araudian ezartzen den erantzukizunen eta zehapenen erregimena ezarriko da.

Adostutakoa onesten dela frogatzeko, aldeek lankidetzaren hitzarmenaren hiru ale sinatzen dituzte, zuzenketa edo zirriborrorik egin gabe. Hori dokumentua osatzen duten 4 folioetan egiten dute. Horrela, dokumentua betetzea agintzen dute bere goiburuan adierazitako toki eta datan.

ALKATE-UDALBURUA,

IDAZKARIA,

Sin.- Gentza Alamillo Udaeta

Sin.- Naiara Lazpita Marcos.

Alkate jaunak eta Idazkari Kontu-hartzaile andreak elektronikoki sinatutako dokumentua.



*AMOR MISERICORDIOSO IKASTETXEAREN ZUZENDARIA,*

*Sin.- Elisa Pelaz Baños.*

**I. ERANSKINA**

***Gizarte-segurantzari egin beharreko ordainketak eta zerga-betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen duten ziurtagiriak. DATU EGIAZTAGARRIAK. AURKA EGITEA.***

*Udal honek behar beste kontsultatu eta egiaztatuko ditu Gizarte-segurantzari egin beharreko ordainketak eta zerga-betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen duten ziurtagiriak. Hori eskura dauden datuen bitartekaritzarako sistemarekin egingo da. Beheko sinatzaileak kontsulta eta egiaztapen horien aurka egin dezake, eta hori eginez gero dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu Laugarren klausulan adierazten diren frogagiriekin batera.*

***Egiaztapen horren aurka egonez gero, jar ezazu X bat:***

- Udalak Ogasunaren (AFA) ordainketak egunean ditudala egiaztatzen duen Ziurtagiria kontsultatzeari aurka egiten diot.*
- Udalak Gizarte-segurantzaren ordainketak egunean ditudala egiaztatzen duen Ziurtagiria kontsultatzeari aurka egiten diot.*

*Aurka egitearen arrazoiketa.*

*Aurka eginez gero, aurka egiteko arrazoiak justifikatu behar dituzu (3/2018 Lege Organikoaren 18. artikulua).*

---

---

---

---

*Data:* \_\_\_\_\_

*Erakundea:* \_\_\_\_\_

*Ordez kariaren izena:* \_\_\_\_\_

*Sin.-* \_\_\_\_\_

I.F.K. C.I.F. P0101100F



*Datu pertsonalen tratamendua legitimatuta dago interes publikoaren izenean edo Aiarako Udalari emandako botere publikoen izenean egindako misio bat betetzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 e) artikuluan, eta gainerako legeria aplikagarrian aurreikusitakoaren arabera.*

**Bigarrena.-** Alkate-udalburuari adierazitako hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

**Hirugarrena.-** Menagaraiko Amor Misericordioso Ikastetxeari akordio honen berri ematea, dagokion Hitzarmena sinatzeko.

#### **4.- Adierazpen instituzionala martxoaren 08a, Emakumearen Nazioarteko Eguna, dela eta.**

Udalbatzari jakinarazi zaio gai horri dagokion Soziosanitarioa, Berdintasuna, Immigrazioa eta Adineko Pertsonak Informazio Batzordearen 2022ko martxoaren 8ko aldeko Irizpena.

Ez da horren gaineko iruzkinik egin, beraz, bertaratutako zinegotziek gaia bozkatu eta aho batez (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek alde egin dute) onetsi dute.

Hori dela bide,

**IKUSI DA.-** Adierazpen instituzionala, martxoaren 08a, Emakumearen Nazioarteko Eguna, dela eta. Testuak honako hau dio hitzez hitz:

#### *2022ko MARTXOAREN 8ko ADIERAZPENA*

##### ***Berdintasunerako Legea berritzea, berdintasunaren aldeko konpromisoa indartzea***

*Urtero bezala, martxoaren 8an, emakumeei historikoki usurpatu zaizkien eskubideak lortzeko egindako borroka anitzen esanahia gogora ekarri eta aldarrikatu nahi dugu. Borroka horiek, zalantzarik gabe, emakumeen bizitzako hainbat arlotan aurrerapen handiak lortzen lagundu dute, eta emakumeen elkarteen eta mugimendu feministaren ekarpenik gabe ez ziratekeen posible izango. Norbanakoan, kolektiboen eta erakundeen arteko elkarlana da, nork bere eragin-eremutik abiatuta, indarrak batuz eta estrategiak partekatuz helburu bera izanik jomuga: emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzea. Gaur egun ere, bide luzea dugu egiteko*



*emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra lortzeko bidean, eta, horregatik, ezinbestekoa da berdintasuna aldarrikatzen jarraitzea Emakumeen Nazioarteko Egunean.*

*Esparru horretan, Eusko Legebiltzarrean Berdintasunerako 4/2005 Legearen Aldaketa onartzeari balioa eman behar zaio, berdintasunaren alde eta indarkeria matxistaren aurka jauzi kualitatiboa egitea ahalbidetuko duen arau-esparrua eraikitzeko testuinguru egokian sustraituta baitago.*

*Badakigu gaur egun gure herri eta hirietan berdintasunarekin gero eta sentsibilizazio handiagoa duten herritarrak ditugula, emakumeenganako indarkeriaren aurkako neurriak gero eta gehiago eskatzen dituztenak. Horregatik, lege berri hau aukera bikaina da gizartearen aldarri horri eta erakundeek herritarren aurrean duten konpromisoari erantzungo dion tresna bat emateko.*

***Berdintasunerako legearen aldaketa dator, zeinak berdintasun-politikak indartzea ekarriko duen, eta, beraz, gizarte bidezkoago eta berdinzaleago baterantz aurrera garamatzana.***

*Hori guztia emakumeen eta gizonen berdintasuna, giza eskubidea izateaz gain, demokrazian sakontzeko eta euskal gizarte kohesionatuagoa, inklusiboagoa eta sozialki eta ekonomikoki jasangarriagoa eraikitzeko behar estrategikoa dela sinetsita.*

*Eta gizarte gisa dugun erronka honetan, toki-erakundeok erantzun onena eman behar diogu arau-esparru berriak dakarren erronka handiari, betiere herritarrekin eta tokiko elkarte eta mugimendu feministekin lankidetzan estuan.*

*Toki entitateek berdintasunarekin eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizartea eraikitzearekin duten konpromisoa argia izan da. Azken 15 urteetan, eta 4/2005 Legeari erantzunez, Euskadiko udalak egiturak, aurrekontuak eta sarea sortuz joan dira Berdintasunetik, tokiko komunitateen eta euskal herritar guztien beharrei eta eskaerei erantzuteko. Aldi berean, beharrezkoa da aurrera egiten jarraitzea, hobetzen jarraitzea eta udalerriei, batez ere txikienei, erronka horiei aurre egiteko tresnak ematea.*

*Honako hauetan sakondu behar dugu: politika publiko guztietako berdintasunaren zeharkakotasunean; emakumeen ahalduntzean; zaintza-lanak ikusarazi, baloratu eta partekatuko dituen gizarte baten eraikuntzan; gizonak berdintasunean inplikatzeko; pobrezia eta feminizazioa gutxitzean; emakumeen sexu-askatasunaren alde; eta hezkuntzan, emakumeentzako bizitza askea eraikitzeko balioak aldatzeko tresnarik eraginkorrena den aldetik.*

*Horregatik, martxoaren 8an, Aiarako Udalak aurrera egiteko konpromisoa hartu du berdintasunaren arloko politiken eta zerbitzuen diseinuan eta plangintzan aurrera egiteko, dagozkien/on jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak bultzatzeko eta indartzeko, bai eta arauak, jarraibideak eta gidalerroak egiteko ere, lege honetan eta lege hau garatzeko araudian ezarritakoa beren esku-hartze eremuetara zehazteko eta egokitzeko, eta behar diren baliabideak emateko*



*Zehazki, konpromisoa hartu nahi dugu honako erronka hauetan pixkanaka aurrera egiteko:*

- *Berdintasun-politikak garatzeko baliabide ekonomikoak, pertsonalak eta teknikoak indartzea.*
- *Berdintasunaren aldeko lanean generoaren eta giza eskubideen ikuspegia indartzea, bai eta Udaleko eta Kuadrillaren arloen arteko koordinazioan ere.*
- *Administrazioko langileen berdintasunari buruzko barne-prestakuntza bultzatzea, oinarritzko, derrigorrezko eta etengabeko prestakuntza-plana progresiboki planifikatuz.*
- *Emakumeen aurkako indarkeria matxista mota guztien biktimei arreta emateko sistema zabaltzea, gure eskumenen esparruan, detekzio goiztiarreko sistemen hobekuntzan aurrera eginez, neurri guztien erdigunean biktimen eskubideak eta haien ahalduntzea kokatuz, eta biktimen erreparazio-eskubidearen aitortzea aintzat hartuz.*
- *Ikuspegi intersektionalaren integrazioan aurrera egitea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko esku-hartze publiko osoaren ikuspegi inspiratzaile gisa.*
- *Herritarren sentsibilizazioan sakontzea, gizartea kontzientziatzeko eta emakumeak ahalduntzeko kanpaina eta programa instituzionalak daudela bermatuz, bereziki gizonak eta haurrak.*
- *Laia Aiaraldea Ahalduntze Eskolak eta Emakumeen gelak baliabide nahikoak dituztela bermatzea. Emakume, nerabe eta neskatuen ahalduntze indibidual eta kolektiborako ekintzak bultzatzea, tokiko eragile feministekin batera.*
- *Erakundeen akordioak eta koordinazio-sistemak eta -protokoloak hobetzea eta aldian-aldian eguneratzea. Horrela, aurten ere Protokoloa jarraipen-mahaiak deituko dira.*
- *Eskualdeko hiritarren mahaiak martxan jartzea, hau da, zainketen sistema aztertzen eta horri ekiten dioten estrategia publiko-komunitarioak martxan jartzeari eta diseinatzeari buruz eztabaidatzeko erabaki-espazioa. Horretarako, aldeztu aurretik, aurtengo Aiaraldeko Berdintasun Topaketan zainketen gaia eztabaidatuko da, mahaiak martxan jartzeko prozesuari hasiera emateko. Mahaiak honako hauek hartu beharko dute parte, besteak beste: udaleko teknikari eta kargu publikoak, sindikatuko eta gizarteko eragileak, mugimendu feministak eta beste motako gizarte-mugimenduak, hezkuntzakoak, osasunekoak, kulturalak eta gazteenak. Estrategia publiko-komunitarioak diseinatzeko, jarraitzeko eta ebaluatzeko gune loteslea izan beharko du, parte-hartzeko zailtasun gehien dituzten emakumeen kolektiboen beharrei arreta berezia jarritz.*
- *Etxeko laguntza-zerbitzuaren edo eguneko zentroaren eredia edo funtzionamendua aztertzea, identifikatutako beharrak asetzeko eta lan-baldintzak duintzeko.*
- *Gure udalerriko emakumezko etxeko langileen egoera ezagutzeko eta aztertzea (gizarte zerbitzuen eta tokiko kolektiboen bidez) eta programa integralak martxan jartzea, haien lan- eta bizi-baldintzak hobetzeko: kontzientziazio kanpainak, etxebizitza eta erroldaren eskubideak bermatzeko ekimenak, aholkularitza zerbitzuak martxan jartzea, etab.*
- *Zaintza-lanen balio sozial eta politikoa aitortzen duten komunikazio-kanpainak egitea, erantzunkidetasunari arreta berezia jarritz eta errealitateak ezagutaraziz, esate baterako, emakumezko etxeko langileena.*



*Martxoaren 8a dela-eta, herritar orori dei egiten diogu udalerrian antolatutako mobilizazioetan parte har dezan!”.*

Udalbatzak aho batez adosten du 2022ko martxoaren 8ari lotutako Adierazpen Instituzionala onestea.

**5.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Etxaurren Ikastolako Gurasoen Elkartearen arteko 2022ko lankidetzaz-hitzarmena. Hitzarmen horren bidez zuzeneko dirulaguntza ematen da, eta Etxaurren Ikastolako laguntza psikopedagogikorako zerbitzua (psikologoa) eta bi urteko gela-zerbitzua (laguntzailea) finantzatzeko erabiliko da.**

Udalbatzari jakinarazi zaio gai horri dagokion Soziosanitarioa, Berdintasuna, Immigrazioa eta Adineko Pertsonak Informazio Batzordearen 2022ko martxoaren 8ko aldeko irizpena.

Ez da horren gaineko iruzkinik egin, beraz bertaratutako zinegotziek gaia bozkatu eta aho batez (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek alde egin dute) onetsi dute.

Hori dela bide,

**IKUSI DA.-** Udalak IGEa laguntzeko interesa bere gizarte-hezkuntzako zereginetan. Zereginaren helburua Etxaurren Ikastolan garatzen den heziketa osatzea, hobetzea eta hedatzea da.

**IKUSI DA.-** IGEaren zeregin nagusietako bat laguntza psikopedagogikorako eta bi urteko ikasgelako zerbitzuak bermatzea da.

**IKUSI DA.-** 2022 ekitaldirako Aiarako Udalaren eta Etxaurren Ikastolako Guraso Elkartearen arteko lankidetzaz-hitzarmena.

**IKUSI DA.-** Soziosanitarioa, Berdintasuna, Immigrazioa eta Adineko Pertsonak Informazio Batzordearen 2022ko martxoaren 8ko aldeko irizpena.

**AINTZAT HARTU DA.-** Hitzarmenak Aiarako Udalak Etxaurren Ikastolako Guraso Elkartearen alde egiten duen zuzeneko dirulaguntza arautzen duela. Gainera, udalaren aurrekontuan dauden bi partida izendunek kreditu nahikoa eta egokia dute hitzarmena sinatzeak Udalari ekarriko dion gastuari aurre egiteko.

Bertaratutako zinegotziek (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek) aho batez onetsi dute, eta **ERABAKI DUTE:**





**Lehenengoa.-** Aiarako Udalaren eta Etxaurren Ikastolako Gurasoen Elkartearen arteko 2022ko Lankidetzeta-hitzarmena onestea. Hitzarmen horren bidez zuzeneko dirulaguntza ematen da, eta Etxaurren Ikastolako laguntza psikopedagogikorako zerbitzua (psikologoa) eta bi urteko gela-zerbitzua (laguntzailea) finantzatzeko erabiliko da. Testuak honako hau dio hitzez hitz:

**“AIARAKO UDALAREN ETA ETXAURREN IKASTOLAKO GURASOEN  
ELKARTEAREN ARTEKO 2022KO LANKIDETZA-HITZARMENA, ETXAURREN  
IKASTOLAKO LAGUNTZA PSIKOPEDAGOGIKORAKO ZERBITZUA (PSIKOLOGOA)  
ETA BI URTEKO GELA-ZERBITZUA (LAGUNTZAILEA) FINANTZATZEKO.**

Arespalditzan, 2022ko martxoaren (e)(a)n.

**BILDUTAKOAK**

Alde batetik, *GENTZA ALAMILLO UDAETA JAUNA*, Aiarako Udaleko Alkate-Udalburua, NAN zk. 44686448-R, Aiarako Udaleko Idazkaria den *Naiara Lazpita Marcos* andreakin batera, ekitaldiaren fede ematen duena.

Bestalde, *ANA CRISTINA MARTINEZ SOLAEGI ANDREA*, Etxaurren Ikastolako Gurasoen Elkarteko Zuzendaria, NAN zk. 44975776-N.

**ESKU HARTZEN DUTE**

*Lehenengoa* Aiarako Udaleko alkate-udalburua dela, toki-erakunde horren izenean eta ordezkari dela. Toki-erakundea horretarako gaituta dago eta eskuduna da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera.

*Bigarrena* Etxaurren Ikastolako Guraso Elkartearen izenean eta hori ordezkatur, IFK zk. G-01118769 dela.

Biek elkarren gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa aitortzen dute **lankidetzeta-hitzarmena** emateko eta betetzeko. Horretarako

**ADIERAZTEN DUTE**

**I.-** Etxaurren Ikastolako Guraso Elkarreak gizarte-hezkuntzako zeregin garrantzitsua egiten duela, helburua Etxaurren Ikastolan garatzen den heziketa osatzea, hobetzea eta hedatzea dela. Etxaurren Ikastolak Aiarako Udalaren laguntza du zeregin horretarako.

**II.-** Aiarako Udalaren laguntza ekonomikoarekin batera, Etxaurren Ikastolako Gurasoen Elkartearen funtzio nagusietako bat, hain zuzen ere, Laguntza Psikopedagogikorako Zerbitzua



*eta Bi Urteko Gela-zerbitzua bermatzea dela Etxaurren Ikastolan. Horretarako proiektua garatzeko beharrezkoak diren teknikariak kontratatzen dira (psikologo bat eta laguntzaile bat).*

**III.-** *II. puntuaren azaldutako zerbitzua garatzen jarraitzea ezinbestekoa dela aho batez erabaki dela ikusi da. Hori dela eta, Aiarako Udalak – Etxaurren Ikastolako Gurasoen Elkartearen adostasunarekin – erabaki du adierazitako elkarteari emateko laguntza ekonomikoa erregulatzea, puntu horretan adierazitako helburua betetzeko. Hori hitzarmenaren bidez egiten da, Aiarako Udalak Etxaurren Ikastolako Guraso Elkarteari emango dion 2022ko urteko dirulaguntza erregulatzen duena.*

**IV.-** *Aplikazioari buruzko legeria zehatz-mehatz betez eta kontuan hartuz toki-erakundea laguntzen duen lankidetzaren hitzarmena sinatzeko gaitasuna, alde bietan lankidetzaren hitzarmena formalizatzeari ekin diote, honako baldintza hauek ezarritik:*

### **HIZPAKETAK**

**Lehenengoa:** *Hitzarmenaren xedea ETXAURREN IKASTOLAKO GURASO ELKARTEARI dirulaguntza ematea da, 2022 urtean zehar Etxaurren Ikastolako laguntza psikopedagogikoko zerbitzua (psikologoa) eta bi urteko gela-zerbitzua (laguntzailea) kontratatu dezan. Izan ere, bi zerbitzu horiek izatea ezinbestekotzat jo da Aiarako udalerriko Etxaurren Ikastolako zerbitzatzen duen eskola-erkidegoak gizarte-hezkuntzako arreta egokia izan dezan.*

**Bigarrena:** *Hitzarmenean 2022 urterako AIARAKO UDALAREN eta ETXAURREN IKASTOLAKO ELKARTEAREN arteko lankidetzaren zehazten da, Etxaurren Ikastolako laguntza psikopedagogikoko zerbitzua (psikologoa) eta bi urteko gela-zerbitzua (laguntzailea) finantzatzeari buruzkoa, honako zerbitzu hauek emateko:*

#### **Laguntza psikopedagogikoko zerbitzua (psikologoa):**

- **Irakasleekin**
  - *Gelako koordinatzaile laguntzailea, ikastetxeko orientatzailearekin batera.*
  - *Koordinazioa logopedarekin.*
  - *Koordinazioa PTarekin.*
  - *Koordinazioa Berritzeguneko orientatzailearekin.*
  - *Ikasle bakoitzaren jarraipena egiteko, psikologoa zentroko irakasle bakoitzarekin eta PTarekin koordinatzea astean behin.*
  - *Irakasleen formakuntza (emozioak, gatazkak konpontzea).*
  - *Aholkularitza psikologikoa irakasleentzat, bai kasu zehaztarako eta baita gela osorako ere.*
  - *Tutoretza-saioetan lan egiteko materialak ematea (arloan afektiboari, emozioei, arloan psikologikoari... lotuta).*
  - *Ikasleen jarraipena egiteko antolatzen diren bilera guztietan parte hartzea irakasleekin batera.*



- *Ikasleekin*
  - *Ikasleak behatzea, diagnostikoa egitea, esku-hartzea (beharrezkoa bada), eta jarraipena egitea (guneko orientatzailearekin koordinatuz).*
  - *Ikasleei aholku ematea.*
  - *Honako ikasle hauei froga psikologikoak egitea: bost urteko gelakoei, lehen hezkuntzako bigarren, laugarren eta seigarren mailako gelakoei, eta, oro har, horren beharra dutenei.*
- *Familiekin*
  - *Zuzeneko arreta familientzat.*
  - *Aholkularitza.*
  - *Gurasoei zuzendutako hitzaldiak (heziketa afektibo-sexuala, gatazkak konpontzea...) antolatzea eta koordinatzea.*
- *Bestelako eginkizunak*
  - *Zuzendaritza-taldeko kidea izatea, irakaslea ez den partaide gisa.*
  - *Durangon egiten diren Amara Berriko zuzendaritza-taldeen bileretan parte hartzea.*
  - *Amara Berriren topaketetan parte hartzea.*
  - *Berritzegunek ematen duen formakuntzan parte hartzea.*

***Bi urteko gela-zerbitzua (laguntzailea):***

- *Ikasleen higie-ne- eta hezkuntza-beharrak asetzea.*
- *Mugimenezko beharrak eta behar afektiboak asetzea.*
- *Irakasleak beraien heziketa-proiektuan laguntzea, bai gelan eta baita gelatik kanpo egiten diren jardueretan (jolas-tokia, psikomotrizitate gela, ikus-entzunezkoen gela).*
- *Pixoihalak aldatzea eta konketa eta komuna erabiltzearen hastapena.*
- *Oinarrizko eginkizunak irakastea, esate baterako, orraztea, zapatak, amantalak eta jaka jartzea; paperontzia erabiltzea, eta jolastu eta lan egin ondoren gela jasotzea.*
- *Autonomia lantzea eta jateko ohitura egokiak irakastea (ondo esertzea, mahai-tresnak erabiltzea, eskuak eta ahoa garbitzea).*
- *Ikasleak siesta ordurako prestatzea eta lo geratzen diren arte zain egotea.*

*Hitzarmena 2022 urterako sinatzen da, eta 2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra iraungo du.*

***Hirugarrena:*** *Aiarako Udalak onartzen duen eta ETXAURREN IKASTOLAKO GURASO ELKARTEAri egingo zaion urteko ekarpen ekonomikoa dagozkion udal-aurrekontuetan jasoko dira. Zenbatekoa hilabetero ordainduko da, eta lehen ordainketaren aurretik Foru-ogasunari eta Gizarte-segurantzari egin beharreko ordainketak egunean dituztela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztuko da. Horretaz gain, ordainketak Etxaurren Ikastolako Guraso Elkarteak*



zerbitzuen langileen soldatak ordaintzen direnean egingo dira. Langileak laguntza psikopedagogikoaren zerbitzuko psikologoa eta bi urteko gela-zerbitzuko laguntzailea dira.

2022 urteari dagokion ekarpen ekonomikoa honako hau da:

- Laguntza psikopedagogikoaren zerbitzuko psikologoa (1.500,00 € kontsignatu dira egon daitezkeen bajetarako)	36.200,27 €
- Bi urteko gelako laguntzailea (1.500,00 € kontsignatu dira egon daitezkeen bajetarako)	21.387,24 €
<b>2022ko EKARPENA GUZTIRA:</b>	<b>57.587,51 €</b>

2022 Hitzarmenean kontsignatu den 3.000,00 €-ko zenbatekoa, bi postuetan egon daitezkeen bajak betetzeko dagoena, osorik erabili ahal izango da – beharra egonez gero – postuetako bakar bateko bajak ekarritako gastuetarako. Hori zenbatekoa kontsignatu den postu berean ez dela beharko ziurtatu ondoren egingo da.

Hitzarmenean ezarritako urterako kontsignatutako zenbatekoa nahikoa ez bada bajak estaltzeko, Aiarako Udalak horri aurre egiteko ahalmena aztertuko du, baldin eta aurrekontu-baliabideak badaude.

**Laugarrena:** Hitzarmena sinatzen den unetik aurrera ETXAURREN IKASTOLAKO GURASO ELKARTEAK Aiarako Udalaren laguntza jasotzen duela adieraziko du hedabideetan dirulaguntza jasoko duten bi zerbitzuei buruzko informazioa zabaltzen duenean.

**Bosgarrena:** ETXAURREN IKASTOLAKO GURASO ELKARTEAK dirulaguntzaren urtearen ondorengo urtarilaren 31 baina aurretik honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du Aiarako Udalaren Erregistro orokorrean:

- Hitzarmenaren dirulaguntzarekin egindako jardueretarako jasotako beste dirulaguntza guztien deklarazioa, horiek erakunde publiko zein pribatu batek eman dituela.
- ) Foru-ogasunari eta Gizarte-segurantzari egin beharreko ordainketak egunean dituztela egiaztatzen duen ziurtagiria. Hala ere, instrukzio-organoak Gizarte-segurantzari egin beharreko ordainketak eta zerga-betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen duen ziurtagiria kontsultatu eta egiaztatuko du elkarreragingarritasunarekin, eskatzaileak edo onuradunak aurka egon ezean. Aurka badaude, I. ERANSKINA BETE BEHARKO DA eta dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.
- Hitzarmenaren bidez dirulaguntza jasotzen duen jarduerari lotutako honako dokumentazio hau:



- Dirulaguntza jaso den ekitaldiaren gastuen eta sarreraren balantzea, ekitaldi horretan zehar bi langileei ordaindutako soldata guztien kopiarekin.
- TC-1 eta TC-2aren kopia.
- Dirulaguntza jaso den urte naturaleko Jardueren Memoria.
- Egindako jarduera bakoitzaren ebaluazio-txostena eta zinpeko adierazpena, egin bada.

Udal honek behar beste kontsultatu eta egiaztatuko ditu Gizarte-segurantzari egin beharreko ordainketak eta zerga-betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen duten ziurtagiriak. Hori eskura dauden datuen bitartekaritzarako sistemarekin egingo da. Beheko sinatzaileak kontsulta eta egiaztapen horien aurka egin dezake, eta hori eginez gero dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu Laugarren klausulan adierazten diren frogagiriekin batera.

**Egiaztapen horren aurka egonez gero, jar ezazu X bat:**



- Udalak Ogasunaren (AFA) ordainketak egunean ditudala egiaztatzen duen Ziurtagiria kontsultatzeari aurka egiten diot.*
- Udalak Gizarte-segurantzaren ordainketak egunean ditudala egiaztatzen duen Ziurtagiria kontsultatzeari aurka egiten diot.*

*Aurka egitearen arrazoiketa.*

*Aurka eginez gero, aurka egiteko arrazoiak justifikatu behar dituzu (3/2018 Lege Organikoaren 18. artikulua).*

---

---

---

---

*Data:* \_\_\_\_\_

*Erakundea:* \_\_\_\_\_

*Ordez kariaren izena:* \_\_\_\_\_

*Sin.-* \_\_\_\_\_

*Datu pertsonalen tratamendua legitimatuta dago interes publikoaren izenean edo Aiarako Udalari emandako botere publikoen izenean egindako misio bat betetzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 e) artikuluan, eta gainerako legeria aplikagarrian aurreikusitakoaren arabera.*

**Bigarrena.-** Alkate-udalburuari ahalmena ematea aipatutako hitzarmena sinatzeko.

**Hirugarrena.-** AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAri erabaki honen berri ematea, hitzarmena sinatzeak dakartzan ondorioetarako.

**9.-2030 Agendari buruzko udalaren adierazpena.**

Udalbatzari 2022ko martxoaren 8an Hirigintza, Obrak, Zerbitzuak eta Ingurumenaren informazio batzordeak puntu honi buruz egindako aldeko txostenaren berri eman zaio.



Horri dagokionez ez da esku hartzerik egin eta gaia bozkatu da, bertaratutako kideek aho batez onetsi dute (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzitatik 10ek).

Eta ondorioz,

**IKUSI DA.**- 2030 Agendari buruzko Aiarako Udalaren adierazpena,

Udalbatzak, udalkide guztien adostasunez, ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.**- 2030 Agendaren udalaren adierazpena onestea; honako hau dio hitzez hitz:

*“2030 AGENDARI BURUZKO UDALAREN ADIERAZPENA*

*Aurrekariak*

*2015eko irailean Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2030 Agenda onetsi zuen New Yorken. 193 herrialdek 2030 Agenda eta Garapen Jasangarriko Helburuak betetzea hitzeman zuten.*

*2030 Agenda koherentzia, zeharkakotasunaren eta mota guztietako erakundeek partekatutako ibilbide-orri baten aldeko apustua egiten duen tresna da. Horren lelo indartsua “inor atzean ez uztea” da, eta garrantzi berezia hartu zuen COVID-19aren pandemiak eragindako egungo testuinguruan.*

*Euskadin, 2030 Agenda tokia hartzen ari da administrazio publikoaren hainbat mailetan eta sektore batzuetako (hezkuntza, industria, hirugarren sektore soziala) hainbat erakundetan.*

*Zehazki, Eusko Jaurlaritzak 2018an ekin zion bideari, Agenda Euskadi Basque Country 2030 onetsi zuenean, eta 2020an Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia sortu zuen.*

*Udalsarea 2030eko kide gisa, Aiara/Ayalak tokiko jasangarritasunean aldeztu aurretiko ibilbidea du, eta horrek kapital garrantzitsua ematen digu Tokiko 2030 Agendari ekiteko, eta hori izango da hurrengo hamarkadako gobernantza-eredua definituko duen ibilbide-orria.*

*Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH)*

*2000 eta 2015 bitartean indarrean egon ziren Milurtekoaren Helburuen oinordeko gisa, Nazio Batuek zabalduetako Garapen Jasangarriko 17 Helburuek (eta Euskadin gehitu dugun 18. helburua: hizkuntza- eta kultura-aniztasuna) egungo testuinguruak markatzen dizkiguten lehentasunetan arreta jartzea baimentzen digute 2030 urteari begira, betiere egungo momentuan jardunez.*

*Agente eta maila anitzeko agenda*



*Nazio Batuek, lehenengo aldiz, herrialde-mailaz gain, administrazio publikoen mailan enpresa pribatuei eta hirugarren sektore sozialeko erakundeei parte aktibo izateko eskatzen die. Horrek testuinguru berria eta amankomuna eskaintzen digu, eta eragile guztiek amankomuneko hizkuntza erabili dezakegu eta erabakiak eta aliantzak sustatu, helburuak indartzeko eta lortzeko.*

#### *Tokiko administrazioen eginkizuna*

*Herritarrengandik gertuen dagoen administrazio publikoa garen aldetik, Udalek oso paper garrantzitsua jokatzen dugu Garapen Jasangarriko Helburuak betetzeko laguntzen:*

- udalerrria toki seguru, osasuntsu, inklusibo, erresiliente eta jasangarria bihurtzea;*
- gure udalerrian aukeren berdintasuna eta kultur aniztasuna sustatzea, eta pobrezia eta despaketotasuna eremu guztietan murriztea;*
- lanbide duinerako sarbidea sustatzea, tokiko merkataritza, ekoizpena eta turismo jasangarria bermatuz;*
  - garapen ekonomikoa prozesu jasangarrietan oinarrituz sustatzea eta hezkuntzaren irisgarritasuna hedatzea bizitzako etapa guztietara iristeko;*
  - 2030 Agendak eskaintzen dizkigun aukeretan oinarritzea COVID-19aren testuingurutik berreskuratzeko;*
  - Tokiko 2030 Agenda koherentzia, eraginkortasuna, gardentasuna eta herritarren parte-hartzea bermatuko duen gobernantza ereduari oinarritzea;*
  - eta Garapen Jasangarriko Helburuak lortzeko, garapenerako lankidetzaren indartzea eta aliantzak ezartzea.*

#### *Horregatik guztiagatik*

*Aiara/Ayalako Udala 2030 Agendarekin eta Garapen Jasangarriko Helburuak betetzera konprometitzen da, eta hasiera ematen dio Tokiko 2030 Agendako Ekintza Plana definitzeko prozesu parte-hartzaileari, eta bere printzipioak hurrengo urteetako udal-politika gidatuko duten oinarri estrategikoa direla onartzen du, honako hauen bidez:*

- GJHak betetzea sustatuko duen politika edo udal-plana garatzea;*
- politika edo udal-plan hori ezartzea eta horren jarraipena egitea bermatuko duten baliabide teknikoak, antolatzaileak edo ekonomikoak ezartzea;*
- aldian-aldian GJHekiko gure egoera eta garapenaren berri ematea Txosten publiko boluntario baten bidez;*
- herritarren parte-hartzea erraztea 2030 urteko ibilbide-orrian;*
- erakunde publiko zein pribatuekin aliantzak eta lankidetzaren sustatzea, Garapen Jasangarriko Helburuen efektu biderkatzaileari laguntzeko.*

*Aiara/Ayala, 2022ko (r)en (e)(a)n”.*



## **10.- 2030 Arabako Aliantzaren Adierazpena.**

Udalbatzari 2022ko martxoaren 8an egindako Hirigintza, Obrak, Zerbitzuak eta Ingurumenaren informazio batzordeak puntu honi buruz egindako aldeko txostenaren berri eman zaio.

Horri dagokionez ez da esku hartzerik egin eta gaia bozkatu da, bertaratutako kideek aho batez onetsi dute (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzitatik 10ek).

Eta ondorioz,

**IKUSI DA.-** Aiarako Udalak 2030 Arabako Aliantzara atxikitzeko egindako udal-adierazpena.

Udalbatzak, udalkide guztien adostasunez, ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Aiarako Udala 2030 Arabako Aliantzara atxikitzeko udal-adierazpena onesta; honako hau dio hitzez hitz:

### *“HITZAURREA*

*2015eko irailean, “Gure mundua eraldatzen: garapen jasangarrirako 2030 Agenda” goiburuararekin, Nazio Batuen Batzarrak Garapen Jasangarrirako Agenda berria onetsi zuen, 2016z geroztik indarrean dagoena.*

*Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren helburua da pobrezia ezabatzea, planeta babestea, pertsona guztien oparotasuna ziurtatzea, bakea sendotzea eta justizia baliatzeko eskubide unibertsala ziurtatzea. Bestetik Agendak ekintza plan bat ezartzen du, garapen jasangarriko 17 helburu (GJH) eta 169 xede biltzen dituena, eta adierazpen politiko batean oinarritzen da, zeinaren bidez nazioarteko komunitate guztiari eta sektore eta agente guztiei dei egiten baitzaie nork bere konpromisoa har dezan Agenda hau betetzeko.*

*Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak, 2017ko irailaren 26an, onetsi zuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agendari atxikitzea, eta agenda hori egikaritzeko konpromisoa bere gain hartzea bere politika publikoetan. Era berean, konpromisoa hartu zuen 2030 Agendaren edukia eta irismena zabaltzeko eta hedarazteko Arabako lurralde historikoan, agente publikoen eta hango eta hemengo arlo eta sektoreetako agente pribatuen artean aliantzak sorraraziz, 2030 Agendak aldarrikatzen duen bezala.*

### *ADIERAZPENA*

*Araba lurralde askotariko eta plurala da, baditu naturgune enblematikoak nahiz industria eta logistika garapeneko polo erreferentziazkoak, landa inguruneak nahiz hirigune garrantzitsuak,*



*badauka kultur eta natur ondare aberats bat, leial dirau sustraiekiko eta usadioekiko, badu etengabe berritzeko bokazioa, eta sozietate berri, askotariko eta ireki bat du bere baitan.*

*Gure lurraldeak, beste gizarte guztiek bezalaxe, aurre egin behar die desafio zail eta globalei. Desberdintasunak hazi izana, ingurumena hondatzen aritzea, emakume eta gizonen artean dauden desorekak, garapenaren onurak oso desberdin banatzea eta klima aldaketa bera oztopo handiak dira etorkizun duin eta jasangarri bat ziurtatzeko pertsona guztientzat.*

*Hori dela eta, Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren garrantzia, asmo handia eta irismena direla-eta, zorioneko gaude Agenda horri atxikimendua adierazi izanaz; zeren pertsonen, planetaren, oparotasunaren, bakearen eta Garapen Jasangarrirako 17 Helburuak (GJH) lortzearen aldeko mundu mailako konpromiso bat baita. Ezinbesteko tresna bat da, planeta osoan garapen eredu barnerakoi eta jasangarri batera igarotzea ziurtatzeko, bide orri bat, nazioarteko komunitate guztiak bere egin duena.*

## **KONPROMISOAK**

*Jabeturik ezen 2030 Agenda eta GJHak egikaritzeko konpromiso bat eta elkarrekiko ahalegin bat behar direla, Arabako lurraldeko ekonomia, gizarte, hezkuntza, kultura eta enpresa arloko agente publiko eta pribatuek geure lurraldearekiko eta bertan bizi diren pertsonetikiko konpromiso bat AGERTZEN DUGU, zalantzarik gabekoa.*

*Horretarako, Garapen Jasangarrirako Arabako 2030 Aliantzaren bidez, Arabako gizarteko entitate batzuek eta besteek garapen jasangarriaren alde egiten dugun lana aitortu eta sustatu nahi da. Aukera paregabea da hau elkarrekiko helburu baterako pausuak egiteko, Arabaren aldeko eta planetako pertsona eta herri guztien aldeko ahaleginak batzeko. Itun hau irekia, borondatezkoa eta parte hartzezkoa izango da.*

*Asmo eta helburu horiekin, konpromiso hauek sinatzen ditugu Nazio Batuen Garapen Jasangarriaren aldeko 2030 Agendaren alde:*

*Konpromisoa hartzen dugu indarrak batzeko eta, nor bere jardun arlotik, Araban ere 17GJHak egikaritzen laguntzeko.*

*Konpromisoa hartzen dugu pertsona guztien giza eskubideak errespetatu, babestu eta sustatzeko, inolako diskriminaziorik gabe.*

*Konpromisoa hartzen dugu gure erabakiak eta ekintzak lagungarriak izan daitezen lurralde seguruago, oparoago, barneratzaileago, parekideago, erresilienteago eta jasangarriago baterako bidean aurrera egiteko.*

*Konpromisoa hartzen dugu gure entitateetan eta gure entitateetatik emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzeko, eta kultur dibertsitatea sustatzeko, arreta berezia jarri pertsona eta kolektibo zaurgarriei.*



*Konpromisoa hartzen dugu eraginkortasunez eta jasangarritasunez baliatzeko natur baliabideak eta eraginkortasunez eta jasangarritasunez kudeatzeko produkzio prozesuak, betiere pertsonen ongizatea hobetzea edukiz jomugatzat.*

*Konpromisoa hartzen dugu geure natur eta kultur ondarea kontserbatzen eta sustatzen laguntzeko, bereziki eraginez euskararen sustapenean eta erabileran.*

*Konpromisoa hartzen dugu gure jarduna gidatzen duten printzipiotzat hartzeko elkarlana, lankidetzeta eta guztien onura, gure herrien eta lurralde osoaren nortasun-balio berezkoak berreskuratuz eta sendotuz.*

*Konpromisoa hartzen dugu 2030 agenda eta GJHak egikaritzeko ekimenen alde egiteko eta haien zabalkundea eragiteko ekimenen alde egiteko.*

*Konpromisoa hartzen dugu aliantza eginik lan egiteko atzean inor geratuko ez den Araba bat eraikitzearren.*

## **11.- EH Bildu Aiara udal-taldeak aurkeztutako mozioa, udalerrian komunitate energetikoen sorrera sustatzeko.**

Udalbatzari 2022ko martxoaren 8an egindako Hirigintza, Obrak, Zerbitzuak eta Ingurumenaren informazio batzordeak puntu honi buruz egindako aldeko txostenaren berri eman zaio.

Karmele Población Martínez (EH-BILDU) zinegotzi andreak aipatutako mozioan adierazten duena labur azaltzeko esku hartu du; honako hau dio hitzez hitz:

*“EH Bildu Aiarak aurkeztutako mozioa,  
udalerrian komunitate energetikoen sorrera sustatzeko*

### **ZIOEN AZALPENA**

*Agerikoa da larrialdi klimatikoko egoera bizitzen ari garela eta egungo eredu energetikoa aldatu behar dela. Beharrezkoa da eredu energetiko berri baterantz jotzea, honako hauetan oinarrituko dena, jasangarritasun parametroen barnean: energia aurreztean, eraginkortasunean, herritarren parte-hartzean eta energia berriztagarrien garapenean. Zentzu horretan, Aiarako Udalak 2030 Agendara atxikitzea sustatu du; 6. helburuak, hain zuzen ere, energia irisgarri, seguru, jasangarri eta moderno baterako sarbidea bermatzeari buruz hitz egiten du. Agenda honek hainbatetan onartzen du gobernuak zein tokiko erakundeak jasangarritasunaren parte direla, bai eragile sozialak bai eta herritarrak ere.*

*Eragile askok eredu energetiko berri baten aldeko apustua egiteko interesa dute, eta martxan jartzen ari dira energia berriztagarrietan oinarritutako ekimenak, aldi berean burujabetza*



*energetikoaren eta energiaren demokratizazioaren aldeko apustua egiten dutenak. Horren adibide dira komunitate energetikoak, dagoeneko errealitate bihurtu direnak gure lurraldean. Komunitate energetikoak, tokian tokitik lan eginez, energia berriztagarrien ekoizpen, kudeaketa, kontrol eta kontsumorako eredu berriak komunitatean sustatzeko tresnak dira. Trantsizio energetikorako beharrezko baldintzak dituen ekimena da, eta IDAEk (Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuak) eta Europar Batasunak dagoeneko horren balioa aintzatetsi dute. Aitzitik, Europar Batasunak berak gaur egun Estatu Kideak animatzen ditu figura horiek garatzera.*

*Gainera, uste dugu gure udalerrriak baldintza aproposak dituela (sakabanatutako eta populazio txikiko herriak) interesa duten nukleoetan energia fotovoltaikoa sortzeko komunitate energetikoak ipintzeko. Energiaren autokontsumoak abantaila handiak ditu. Energia berdea sortzea ahalbidetzen du etxebizitza eta denden autokontsumorako; horrez gain, argiaren fakturan aurreztea, ingurumeneko eragina murriztea, instalazio handiak ugaritzea ekiditea eta auzokideak eguzki-energia sortzen eta kudeatzen zuzenean parte hartzea eragiten du.*

*Horregatik guztiagatik, uste dugu instituzio publikoek autokontsumoa sustatu beharko luketela eta ekimen mota horien garapena bultzatu. Gainera, Europar Batasunak sustatutako Next Generation funtsen barne, komunitate energetikoak sustatzeko dirulaguntzen berri ematen ari dira.*

*Aurreko hori guztiagatik, Aiarako EH Bildu udal-taldeak honako mozioa aurkeztu du udalbatzan eztabaidatu eta onetsi dadin:*

- 1. Aiarako Udalak bere konpromisoa berretsi du 2040 urterako deskarbonizazio-etorkizunera eramango gaituen trantsizio energetikoa bultzatzeko.*
- 2. Aiarako Udalak komunitate energetikoek trantsizio energetikoaren alde egiteko duten gaitasuna aitortzen du, eta konpromisoa hartzen du Aiarako udalbatzetan energia-komunitateak sortzeko eta parte-hartzea eskatzen duten ekimenetara atxikitzeko, Batzarrak bere udal-erakinetan panelak jarri nahi ez dituenean edo ezin dituenean.*
- 3. Aiarako Udalak konpromisoa hartzen du eskualdeko administrazio-batzar guztietan informazio-kanpaina martxan jartzeko, herritarrek komunitate energetikoaren figura ezagut dezaten.*
- 4. Aiarako Udalak konpromisoa hartzen du udal partaidetza izango duten energia komunitateak sortzeko interesa duten guneen mapa osatzeko.*
- 5. Aiarako Udalak konpromisoa hartzen aholkularitza-zerbitzua gaitzeko aukera ikertzeko. Era horretan komunitate energetikoak martxan jartzeko interesa duten administrazio-batzarrei laguntzeko.*
- 6. Aiarako udalak mozio hau bidaliko die udalerriko administrazio-batzar guztiei”.*





Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) esku hartu du bere taldeak proposamenaren aurka egingo duela adierazteko; izan ere, gobernu-taldeak, Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera, egoera ikusita, uste du zentzu handiagoa duela lanean jarraitzea, ez soilik komunitate energetikoetan, baizik eta gainerako ekimen, kooperatiba, autokontsumo, eta abarretan ere. Gainera, mozio hori soilik hanketako batean zentratzen da, eta uste da komunitateen eremuan lan egiteaz ez ezik, eraginkortasun energetikoaren gainerako eremuetan ere lan egin behar dela. Horrez gain, azaltzen du Arabako Foru Aldundiak administrazio-batzarrei laguntza eta aholkularitza ematen diela, EEEren ingurumen ikuspegitik. Laguntza teknikoa emateko teknikari aproposak bi erakunde horietan daude. Udalak, azken batean, administrazio-batzarrei laguntza eskaini ahal izango die, adibidez, obretarako eta beharrezkoak diren ekintzetarako dirulaguntzak emanez. Gaineratzen du Aiarako Udalak lan egingo duela udalerrri honetan energia propioa sortzeko.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) berriro esku hartu du, eta adierazi du harritura dagoela aurka egiteko arrazoa espektroa ekimen posible guztietara irekitzen ez dela izatea. Gaineratzen du mozio hori ez dela soilik eraginkortasun energetikoa lortzeko, eta horregatik ez du ulertzen zergatik gauza batzuk babesten diren eta beste batzuk ez. Hori ez da udalerrri osorako soluzioa, soilik hala nahi dutenentzat baizik.

19:15ak direnean, Susana Martín Benavides andrea bilkurara sartu da.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) esku hartu du esateko administrazio-batzarren batek komunitate energetikoa sortu nahi izatekotan, teknikari espezializatuen aholkularitza jasotzeko tokiak dituela.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) berriro esku hartu du eta adierazi du mozio horren helburua dela administrazio-batzar batek komunitate energetikoa sortu nahi izatekotan, horretarako laguntza izatea.

Koldo Mendioroz Goldaraz zinegotzi jaunak (EH-BILDU) esku hartu du esateko Gasteizen EAJk ekimen mota horiek babestu dituela, eta mozioa ez babesteko erabakiaren ondorioz Udalak ere parte har dezakeen komunitate energetikoak sortzeko ateak ixten dituela; harritura dago ekimen mota horiek babestu nahi ez izateagatik.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak esku hartu du eta erantzun du udalak ez duela aterik ixten udalbatzek komunitate energetikoa sortzeko erabakia hartu ahal izateko, autonomia dutela, eta beren erabaki propioak har ditzaketela.

Koldo Mendioroz Goldaraz (EH-BILDU) zinegotzi jaunak esku hartu eta adierazi du bizilagunek udalbatzekin erabaki bat hartu ezean, eta udalek erabaki hori lagundu edo sustatu ezean, ezingo direla aurrera eraman. Sortzen ari diren komunitate guztiek instituzioen baten laguntza izan ohi dute (udalena edo udalbatzena), eraginkorrakoak direlako eta laguntzak hobeak direlako.



Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) esku hartu du eta galdetu du ea mozioan beste hanka batzuk agertu izan balira gobernu-taldeak babestuko lukeen, harrigarria baitirudi batzordean mozioa aurkeztu zen momentuan hori guztia komentatu ez izana eta testu bat adostu izana. Udalaren erronketako bat eraginkortasun energetikoa da; hori formula askoren bidez lortu daiteke, eta horietako bat komunitate energetikoak dira, beraz, indarrak batzeko eta erabaki batera iritsi beharko litzateke.

Iñigo Pinedo Vadillo (EAJ-PNV) zinegotzi jaunak esku hartu du adierazteko mozioa baztertzeko duela, batik bat, administrazio-batzarrek komunitate energetikoak sortzeko autonomia dutelako, eraginkortasun energetikoaren alde lan egiteko beste eredu batzuk daudelako eta Aldundiak eta EEEak dagoeneko aholkularitza eskaintzen dielako administrazio-batzarrei.

Marian Mendiguren Mendibil (EH-BILDU) zinegotzi andreak esku hartu du esateko administrazio-batzarrek ezin dutela komunitate energetikoen inguruko informazio-kanpaina bat martxan jarri, jendeari horren berri eman beharko litzaioke; horrek ez litzuke gainerako ekimenak baztertuko, baina badirudi gobernu-taldea komunitate energetikoen kontra dagoela.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak esku hartu du eta adierazi du informazio-kanpaina bat egitekotan, aukera guztien ingurukoa izen behar duela, eta ez bakar bati buruzko.

Horren inguruko iruzkin gehiagorik ez dagoenez, gaiaren inguruan bozkatu da, eta honako emaitza atera da:

**ALDEKO BOTOAK: 4 (EH BILDU 3 ETA AIARA BATUZ 1)**

**KONTRAKO BOTOAK: 7 EAJ-PNV**

Ondorioz, mozioa atzera bota da.

## **12.- Udalbatzaren erabaki-proposamena, Leader eremuko landa-udalerrriak sustatzeko, garatzeko eta ekonomikoki dibertsifikatzeko laguntzak eskatzeari buruzkoa.**

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio Tokiko Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikuluan jasotakoaren arabera, alkate edo udalburuak, behar bezala arrazoitutako premiazko arrazoiengatik, eguneko gai zerrendan aurretiaz Informazio Batzordeak informatu ez dituen gaiak sar ditzakeela. Kasu horretan, ezin izango da gai horien inguruko inolako erabakirik hartu osoko bilkurak ez badu eguneko gai zerrendan sartzea berresten.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta ez dagoenez inolako iruzkinik bozkatu egin da eta bertaratutako udalkide guztiek aho batez onetsi dute bilkura honen eguneko gai zerrendan sartzea.

Ondoren, Leader eremuko landa-udalerrriak sustatzeko, garatzeko eta ekonomikoki dibertsifikatzeko laguntzak eskatzeari buruzko espedienteari lotutako erabaki-proposamenaren berri eman zaio udalbatzari.



Honi buruzko iruzkin gehiagorik ez dagoenez gaia bozkatu da eta Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Ondorioz,

**IKUSI DA.-** Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuordearen 2022ko urtarrilaren 26ko Araua. Horren bidez, Leader eremuko landa-udalerrriak sustatzeko, garatzeko eta ekonomikoki dibertsifikatzeko laguntzak arautzen dira 2022 ekitaldirako. Landa Garapenerako Eskualdeetako Programa 2015-2020 esparruaren barne onetsi zen, eta 2022ko otsailaren 10eko Euskal Herriko Aldizkari Ofizialetako 29. zenbakian argitaratu zen.

Udalbatzak aho batez **ERABAKI DU:**

**Lehenengoa.-** Leader eremuko landa-udalerrriak sustatzeko, garatzeko eta ekonomikoki dibertsifikatzeko laguntzetara bideratutako deialdian parte hartzea. 2022 ekitaldiko Landa Garapenerako Eskualdeetako Programa 2015-2020 esparruaren barne onetsi zen, honako obra hauetarako:

- *Erabilera anitzeko espazioak egokitzeko obra, Luiaondoko La Torre kaleko 17. zk.*
- *Luiaondon kirol-pistako fatxadak babesteko eta partzialki ixteko markesina jartzea.*

**Bigarrena.-** Udala aipatutako obrak kontratatzeraz eta egikaritzera konprometitzen da, eta obrak osorik ordaintzeaz eta dagozkion zerbitzu-sariez arduratuko da, bere aurrekontuaren eta lortutako dirulaguntzen kargura.

**Hirugarrena.-** Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailean dirulaguntzaren eskaera aurkeztea, behar den dokumentazioarekin batera.

**Ondoren,** alkate jaunak Udalbatzari jakinarazi dio, premiazko arrazoiak direla eta, Udalbatzaren Osoko Bilkurari puntu bat aurkeztu zaiola, gastu-egoeran kredituak gaitzeko kredituak aldatzeko espediente bat onartzeari buruzkoa. Kreditu hori Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina egokitzeko aurrekontu-aplikazioa zabaltzeko erabili nahi da. Hori ez zettorren deialdiarekin batera zihoan gai-zerrendan sartuta, Udal Entitateen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 91.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Idazkariak esku hartu du azaltzeko TEFFFTik 2021eko diru-sarrerei dagozkien aurreikusitakoa baino diru kantitate handiagoa jaso dela. Kantitate hori erabilera anitzeko eraikina egokitzeko obra ordaintzeko erabil daiteke, baina ez duenez izaera finalistarik, Udalbatzak gaikuntza hori onetsi behar du, eta aldaketaren espedientea obraren lizitazio-espediente baino lehenago onetsi beharko da.



Udalbatza jakinaren ganean geratu da, eta ez dagoenez inolako iruzkinik bozkatu egin da eta bertaratutako udalkide guztiek aho batez onetsi dute bilkura honen eguneko gai zerrendan sartzea.

Ondorioz, honako puntu hau gehitu da:

**13.- Onestea, hala badagokio, 2/2022 gaikuntzako kredituak aldatzeko espedientea.**

Ondoren, Udalbatzari 2/2022 gaikuntzako kredituak aldatzeko espedienteari buruzko proposamen erabakiaren berri eman zaio.

Honi buruzko iruzkin gehiagorik ez dagoenez gaia bozkatu da eta Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Ondorioz,

**IKUSI DA.**– 2022ra luzatutako indarrean dagoen udal-aurrekontuko gastuen egoera-orrian 2/2022 ordainketa-kredituak gaitzeari buruzko espedientea, 203.622,89 €-ko zenbatekoan. Izan ere, kreditu horiek sor ditzaketen diru-sarrerak lortu dira, hau da, 2021eko TEFFFko partaidetza handitu da behin betiko likidazioaren ostean.

**KONTUAN HARTUTA.**- Idazkari kontu-hartzaileak jakinarazten duenaren arabera, espedientea otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 31. artikulura eta aurrekontua betearazteko udal-arauan ezarritakora egokitzen da.

Udalbatzak, aho batez, ERABAKI DU:

**Lehenengoa.**- Aipatutako espedientea eta sarreraren egoerako aldaketak eta hortik eratorritako gastuen egoera onestea. Hona hemen azalduta:

**SARREREN EGOERA**

<u>Diru-sarreraren partida</u>	<u>Aurreko kontsignazioa</u>	<u>Igoera</u>	<u>Kontsignazioen totala</u>
42001	0,00 €	203.622,89 €	203.622,89 €

DIRU-SARREREN IGOERAREN ZENBATEKOA, GUZTIRA: 203.622,89 €.



### GASTUEN EGOERA

<u>Gastuen partida</u>	<u>Aurreko kreditua</u>	<u>Gaikuntza bidezko igoera</u>	<u>Kredituaren totala</u>
333.622.000	209.554,74€	203.622,89€	413.177,63 €

GAIKUNTZA KREDITUEN ZENBATEKOA, GUZTIRA: 203.622,89 €.

**Bigarrena .-** Ebazpen hori irmoa eta betearazpenekoa denez, beste izapide gehiagorik egin behar gabe, kontu-hartzailetzak aldaketak egin beharko ditu erakundearen aurrekontuko gastuen egoera-orrian, berehalako ondorioekin.

**Ondoren,** alkate jaunak Udalbatzari jakinarazi dio, premiazko arrazoiak direla eta, Udalbatzaren Osoko Bilkurari puntu bat aurkeztu zaiola, kredituak aldatzeko espediente bat onartzeari buruzkoa, kreditu gehigarri bat onartzeko, 2022rako lizitatutako aurrekontuaren gastuen egoera-orrian zenbait aurrekontu-aplikazio ezartzeko. Hori ez zetorren deialdiarekin batera zihoan gai-zerrendan sartuta, Udal Entitateen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 91.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Idazkari andreak esku hartu du azaltzeko 2021eko likidazioan egotzitako diruzaintzako gerakinaren zati bat erabili nahi dela 2022rako luzatutako gastuen egoera-orrian partida batzuk ezartzeko; besteak beste, Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina egokitzeke, beharrezkoa baita lizitazio-espedientea onartu ahal izateko.

Ez dagoenez inolako iruzkinik bozkatu egin da eta bertaratutako udalkide guztiek aho batez onetsi dute bilkura honen eguneko gai zerrendan sartzea.

Ondorioz, honako puntu hau gehitu da:

**14.- Onestea, hala badagokio, 1/2022ko kreditu gehigarriaren espedientea udalbatzaren bidez.**



Ondoren, Udalbatzari 1/2022 kreditu gehigarriaren espedienteari dagokion erabakiaren proposamenaren berri eman zaio.

Marian Mendiguren Mendibil (EH-BILDU) zinegotzi andreak esku hartu du galdetzeko azterketa topografikoak zeri egiten dion erreferentzia.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du azterketa horren bidez gerora Arespalditzan ipiniko den haurrentzako parkea aztertuko dela; izan ere, URAk, batez ere, azterketa hori eskatzen baitu.

Marian Mendiguren Mendibil (EH-BILDU) zinegotziak esku hartu du Erbiko udalbatzarako dirulaguntzaren partidaz galdetzeko. Horren bidez bidea konponduko da. Idazkariari galdetu dio zein den bere iritzia, izan ere, gaiaren inguruan hitz egin dutenean, horren kontrako iritzia erakutsi baitu.

Idazkariak esku hartu du eta erantzun du aurrekontuaren partida sortzen den momentu honetan ezin duela horren aurkako argudio juridikorik eman, izan ere, udalkideek partida hori onesteko aurrekontuan eman dira, araudia betetzen duelako. Hitzarmenaren bidez gastua zehazteko akordioa egiten den unean, eta dirulaguntza eman nahi denean dirulaguntzen deialdian garaiz eskatu ez zen gastu baterako, orduan bai aurkako txosten bat egiteko argudio juridikoa egongo da. Egiten den eragozpen-txosten hori, ziur aski, osoko bilkurara ekarriko da, hitzarmena, gainerako guztiak bezala, osoko bilkurari aurkeztuko baitzaio, eta, une horretan, osoko bilkurak baztertu beharko du.

Marian Mendiguren Mendibil (EH-BILDU) zinegotziak galdetu du gastu hori onesteko modu desegoki horrek aurrekariak ekarriko dituen. Horrek ez du esan nahi haiek erabakiaren aurka daudenik, izan ere, beste batzuetan ere eskatu izan da ezarritako epeetatik kanpo eskatutako dirulaguntzei salbuespenez erantzutea.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkateak erantzun du argi geratu dela zein den partida horren helburua eta zein den arrazoia, izan ere, urte honetan fama handiko kirol ekitaldia igaroko da Aiaraldetik (Itzulia), eta hainbat bide konpondu behar ziren. Erbiko batzarrak konponketa horiek egiteko ahalegina egin du, eta gainera, URArekin izandako izapidetzeen ondorioz, obra atzeratu da. Hau da, ohiz kanpoko egoera berezia zen. Horregatik guztiagatik, erabaki horren zergatia azaldu da.

Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotziak esku hartu du eta galdetu du arrazoi bakarra Itzulia izan ote den eta ez azpiegitura auzokideentzako beharrezkoa zela, izan ere, URA eta antzeko administrazioekin egon daitezkeen beste izapidetze batzuetarako ere garrantzitsua izan daiteke.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkateak erantzun du Itzulia amaitzen denean, azpiegiturak, logikoki, bertan jarraituko duela eta herriarentzat izango dela, eta URArekin izandako arazoa ere mahaigaineratu dela; horrek guztiak erabakia hartzea eragin du. Etorkizuneko kasuetan, ikusiko da zein den egoera, eta gehitu du ez dutela etorkizunari buruz hitz egingo.



Honi buruzko iruzkin gehiagorik ez dagoenez gaia bozkatu da eta Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Eta, ondorioz,

**IKUSI DA.-** 2021eko aurrekontuaren likidaziora eraman den Gastu Orokorretarako Diruzaintzaren parte bat erabili behar dela 2022rako luzatutako udal-aurrekontuko hurrengo gastu-partidei kreditu handiagoak emateko eta 2022rako gastuen aurrekontuan ez dauden partida berriak sortzeko. Horrela 2023ra arte itxaron ezin duten gastuak ordainduko dira.

**IKUSI DA.-** Organo kontu-hartzaileak egindako txostena, aurrekontu-egonkortasuna ez betetzearen ondorioetarako, Arabako toki-erakundeen aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauan jasotakoarekin bat etorritik (17/2014 Foru Arauak aldatu zuen), eta Osoko Bilkurari helaraziko zaio, kreditu-aldaketa honekin batera horren berri izan dezan.

**AINTZAT HARTU DA.-** Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauan eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean adierazitakoa.

Udalbatzak ahoz batez ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Honako aurrekontu-aplikazio hauen kreditu gehigarriak onestea:

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKO A/€
171.227.071	UDAL-PARTZELAREN IKERKETA TOPOGRAFIKO/GEOTEKNIKOA	2.603,92 €.
323.227.071	IKASTOLAKO BEROKUNTZA ETA ETXEKO UR BERO SANITARIOAREN PROIEKTUAREN EGUNERAKETA	17.182 €
330.226.062	HERRIKO JAIK	39.000€
943.734.002	ERBIKO ADMINISTRAZIO-BATZARRAREN DIRULAGUNTZA BIDEKO OBRARAKO	3.000 €
333.227.070	ERABILERA ANITZEKO ERAIKINAREN OBRA- ZUZENDARITZAREN ETA SEGURTASUN- ETA OSASUN-KOORDINAZIOAREN ORDAINSARIAK	16.975,72€
333.622.000	LUIAONDOKO ERABILERA ANITZEKO ERAIKINAREN EGOKITZAPENA	24.229,19 €



ZENBATEKOA, GUZTIRA: 102.990,83 €.

Aurreko zenbatekoa hemen adieraziko diren baliabideen bidez ordainduko da, era horretan, espedientea berdinduta geldituko da, inolako defizitik sortu gabe:

A. Handitu beharreko diru-sarreraren partidak edo erabili beharreko diruzaintzaren gerakina:

<u>Diru-sarreraren partida</u>	<u>Izendapena</u>	<u>Zenbatekoa/ €</u>
87001	GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAREN GERAKINA	102.990,83 €.
	GUZTIRA .....	102.990,83 €.

Onetsitako kreditu gehigarri guztien batuketa hura ordaintzeko diru-sarreraren guztizkoaren berdina da.

**Bigarrena.-** Erabaki hau ALHAOn argitaratzea eta espediente hau jendaurrean erakustea 15 egun balioduneko epean, interesdunek ikusteko eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak jartzeko epea izan dezaten.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau behin betikotzat jotzea erreklamaziorik egon ezean. Erreklamaziorik egotekotan, erabaki berri bat hartu beharko da horiek onartu edo baztertzeke.

**15.- Osoko bilkuraren erabaki-proposamena, hala badagokio, Luiaondoko erabilera aintzeko eraikina egokitzeko obrak prozedura irekiaren bidez kontratatzeke administrazio-klausula zehatzen agiriak onesteko. Presazko deklarazioa.**

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio Tokiko Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikuluan jasotakoaren arabera, alkate edo udalburuak, behar bezala arrazoitutako premiazko arrazoiengatik, eguneko gai zerrendan aurretiaz Informazio Batzordeak informatu ez dituen gaiak sar ditzakeela. Kasu horretan, ezin izango da gai horien inguruko inolako erabakirik hartu osoko bilkurak ez badu eguneko gai zerrendan sartzea berresten.

Ez dagoenez inolako iruzkinik bozkatu egin da eta bertaratutako udalkide guztiek aho batez onetsi dute bilkura honen eguneko gai zerrendan sartzea.





Jarraian, premiazkoztat jo ondoren, Udalbatzari Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina egokitzeko obrak prozedura irekiaren bidez kontratatzeko administrazio-klausula zehatzen agiriak onesteko espedienteari buruzko erabaki-proposamena jakinarazi zaio.

Honi buruzko iruzkin gehiagorik ez dagoenez gaia bozkatu da eta Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Eta, ondorioz,

**IKUSI DA.-** Espedientean adierazitakoarekin bat, “**Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina egokitzeko**” obra egikaritzeko, kontratua kanpoko enpresa batekin formalizatu behar da.

**IKUSI DA.-** Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentzarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora) 99.3 b) artikuluan zehaztutakoarekin bat, kontratuaren objektuaren izaeraren ondorioz, obrako jarduketak modu independentean egiteak zaildu egingo luke obra behar bezala gauzatzea ikuspegi teknikoetik, eta, beraz, ezin da sortatan banatu.

**IKUSI DA.-** Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentzarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora) 116.4.f) artikuluan zehaztutakoarekin bat (aurrerantzean, SPKL), honako txostenak igorri dira: bitartekoen falta frogatzen duena, loteetan ez banatzekoa eta kontratuaren beharrekoa.

**IKUSI DA.-** 2022ko martxoaren 15ean idazkari kontu-hartzaileak igorritako txostenean jakinarazitakoarekin bat, “Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina egokitzeko” obra egikaritzeko, beharrezkoa da SPKLko 119. artikuluan zehaztutako PREMIAZKO prozeduraren bidez egitea, izan ere, horren adjudikazioa azkartu behar da interes publikoko arrazoiak direla-eta.

**IKUSI DIRA** lizitatu beharreko kontratuaren ezaugarri nagusiak, eta honako hauek dira:

<b>Kontratu-mota:</b> OBRA-KONTRATUA	
<b>Kontratuaren objektua:</b> “Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina egokitzeko” obra egikaritzea.	
<b>Kontratuziorako prozedura:</b> irekia	<b>Izapidetze mota:</b> Premiazkoa
<b>CPV kodea:</b> CPV kodea: 45215200-9 Gizarte-zerbitzutarako eraikinak egiteko lanak 45215222-9 Zentro zibikoak egiteko lanak	
<b>Kontratuaren balio estimatua, guztira:</b> 361.493,24 € (BEZik gabe)	



<b>Lizitazio mota:</b> <b>(BEZik gabe)</b>	361.493,24 €	<b>% 21 BEZa:</b>	75.913,58 €
<b>Lizitazioaren oinarrizko, tasa, BEZa barne</b>	437.406,82 €		
<b>Epea: SEI HILABETE</b>			

**IKUSI DA.-** Izapidetutako kontratazio-espedientea.

**IKUSI DIRA.-** Ezaugarriak eta kontratuaren zenbatekoa; izapidetzea prozedura irekiaren bidez egin behar da.

**KONTUAN HARTU DA.-** Kreditu nahikoa eta egokia dagoela 333.622.000 aurrekontu-aplikazioan kontratazio honek ekarriko dituen gastuak ordaintzeko.

Espedienteko dokumentazioa aurkeztu da, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2019 Legearen (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora) bigarren xedapen gehigarrian adierazitakoarekin bat,

Udalbatzak, ahoz batez, ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.- PREMIAZ onestea** “Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina egokitzeko” obraren espedienteko kontratua izapidetzea, SPKLko 119. artikuluan zehaztutako prozeduraren bidez.

**BIGARRENA.-** Kontratazio espedientea onestea, **premiatzko izapidetzearen prozedura irekiaren bidez** “La Torre kaleko 17. zenbakiko Luiaondo erabilera anitzeko eraikina egokitzeko” obraren kontratua adjudikatzeke.

**HIRUGARRENA.** 2022rako luzatutako 2021eko udal aurrekontuko **333.622.000 aurrekontu-aplikazioaren** kontura dagokion gastua onestea; lizitaziorako oinarrizko aurrekontua 361.493,24 € da, gehi BEZaren % 21ari dagozkion 75.913,58 €, hala badagokio, eta horrek guztira gehienez 437.406,82 €-ko lizitazio-tasa egiten du.

**LAUGARRENA.-** Kontratua eraenduko duten eta espedientean agertzen den Administrazio-klausula Partikularren Agiria onestea, **bai eta lizitazio deialdia onestea ere.**

**BOSGARRENA.-** Lizitazioaren iragarkia kontratatzailearen profilean publikatzea.

**SEIGARRENA.-** Kontratatzaileren profilean argitaratzea kontratazio-espedientea osatzen duten nahitaezko agiriak, bereziki, administrazio-klausulen agiria, baldintza teknikoak eta obrako proiektua. Eskaintzak aurkezteko beharrezko dokumentazioa eskuragarri egon behar du lizitazio-iragarkia argitaratzen den egun berean.



**ZAZPIGARRENA.-** Kontratazio-mahaiko kideak izendatzea eta kontratatzailearen profilean argitaratzea:

- Gentza Alamillo Udaeta jauna, **epaimahaiburua** (Udalbatzako alkate-batzarburua).
- Naiara Lazpita Marcos andrea, **epaimahaikidea** (Udalbatzako idazkari kontu-hartzailea).
- María Jesús Uriondo Echevarría andrea, **epaimahaikidea** (Udalbatzako funtzionarioa).
- Clara Isabel Furundarena Udaeta andrea, **epaimahaikidea** (Udalbatzako funtzionarioa).
- Andoni Oguiza Lejarcegui jauna, **Idazkaria** (Udalbatzako funtzionarioa)."

### **16.- Osoko bilkuraren erabaki-proposamena 2022ko apirileko osoko bilkura dataz aldatzeko.**

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio Tokiko Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikuluan jasotakoaren arabera, alkate edo udalburuak, behar bezala arrazoitutako premiazko arrazoiengatik, eguneko gai zerrendan aurretiaz Informazio Batzordeak informatu ez dituen gaiak sar ditzakeela. Kasu horretan, ezin izango da gai horien inguruko inolako erabakirik hartu osoko bilkurak ez badu eguneko gai zerrendan sartzea berresten.

Udalbatza jakinaren ganean geratu da, eta ez dagoenez inolako iruzkinik bozkatu egin da eta bertaratutako udalkide guztiek aho batez onetsi dute bilkura honen eguneko gai zerrendan sartzea.

Jarraian, Udalbatzari 2022ko apirileko osoko bilkurako saioa dataz aldatzeko erabaki-proposamenaren berri eman zaio.

Honi buruzko iruzkin gehiagorik ez dagoenez gaia bozkatu da eta Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Ondorioz,

**IKUSI DA.-** 2022ko apirileko osoko bilkura apirilaren 21ean egin behar zen.

**KONTUAN HARTU DA.-** Apirilaren 18tik 24ra pazko-astea da, eta familia, lana eta ordezkari politikoak uztartzearen, gomendagarria irizten da aipatutako apirileko osoko bilkuraren data aldatzea.

Udalbatzak, **ERABAKI DU:**

**Lehenengoa.-** Apirileko osoko bilkurako data aldatzea, eta apirilaren 21ean egin ordez, 2022ko apirilaren 25ean, astelehena, egitea.

**Bigarrena.-** Herritarrei erabaki horren berri ematea udaleko iragarki-taulan eta udaleko webgunean".



### **17.- “Hiltegia ez itxi” plataformak aurkeztutako mozioa**

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio Tokiko Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikuluan jasotakoaren arabera, alkate edo udalburuak, behar bezala arrazoitutako premiazko arrazoiengatik, eguneko gai zerrendan aurretiaz Informazio Batzordeak informatu ez dituen gaiak sar ditzakeela. Kasu horretan, ezin izango da gai horien inguruko inolako erabakirik hartu osoko bilkurak ez badu eguneko gai zerrendan sartzea berresten.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta ez dagoenez inolako iruzkinik bozkatu egin da eta bertaratutako udalkide guztiek aho batez onetsi dute bilkura honen eguneko gai zerrendan sartzea.

Ondoren, Udalbatzari “Hiltegia ez itxi” plataformak aurkeztutako mozioaren berri eman zaio.

Honi buruzko iruzkin gehiagorik ez dagoenez gaia bozkatu da, eta honako hau izan da emaitza:

**ALDEKO BOTOAK: 4 (EH BILDU 3 ETA 1 AIARA BATUZ 1)**

**ABSTENTZIOAK: 7 EAJ-PNV**

Ondorioz,

**IKUSI DA.-** “Hiltegia ez itxi” plataformak aurkeztutako mozioa.

Udalbatzak, udalkideen gehiengo soilarekin, **ERABAKI DU:**

**LEHENENGOA.-** “Hiltegia ez itxi” plataformak aurkeztutako mozioa onestea; honako hau dio hitzez hitz:

**“ADIERAZPENA:**

*Azkeneko hilabeteetan ikusi dugu Laudioko udal hiltegia behin betiko itxi dutela, eta, ondorioz, gure baserritar eta harakin asko zerbitzurik gabe gelditu dira, eta merkataritza txikiko eta tokiko produktuak kontsumitzen zituzten herritarrak hornikuntzarik gabe.*

*Egoera horren ondorioz, Aiarako Kuadrillako udal ezberdinetako ordezkariak “HILTEGIA EZ ITXI PLATAFORMAko” kideekin batu dira ekintza ezberdinak baloratzeko, eta, sektoreko*



*eragileekin batera, gure eskualdeko eta inguruko erabiltzaileei zerbitzua emango dien soluzio batean pentsatzeko.*

**MOZIOA:**

*Ondorioz:*

